

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta haziaraziko dituzue bezero horiek?

Bezeroak erakartzeko hainbat estrategia erabiliko ditugu. Lehenik eta behin, sare sozialen publizitatearen bidez gure aplikazioaren existentzia zabaltzeko asmoa dugu, hau da, zuzeneko salmenta teknika bat erabiliko dugu. Produktuaren promozioak iragarriko ditugu, bezeroen arreta pizteko. Aplikazioa gehien erabiltzen dutenek Facebook eta TikTok aplikazioak erabiltzen dituzte, eta sare sozial hauetan gure aplikazioa ezagutuko dute, ondoren, haien ezagunei ahoz-aho partekatuz.

Era berean, Carrefour, Mercadona, eta Lidl supermerkatuetako kideekin akordioak lortuko ditugu, haien bezeroei gure aplikazioaren berri emateko. Horrela, biek bezero gehiago erakarriko ditugu.

Gainera, aplikazioan bertan zalantzak argitzeko atal bat egongo da, non erabiltzaileek telefono-dei edo Gmail bidez gurekin harremanetan jarri ahal izango duten.